

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Jauregi Alberdi

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1934-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Lamarianogaiñekoa baserrian jaio zen, bi anaiatatik zaharrena. Aita bertakoa zen, eta ama Bergarako Miaka (Meaka) baserritik etorritakoa. Uzarragako eskolan ikasi zuen zortzi urtetik hamaikara arte, Joxe Mari maisuarekin. Gero Urretxuko eskola publikoan ikasi zuen hiru negutan, bertako etxe batean apopilo bizi zela eskola egunetan. Etxean ganadua eta baso-sail handiak zituzten. Bera umea zela 30 ardi inguru zituen bere aitak, baina Joxeren ardi zaletasunari esker, 150 ardiko artaldea izatera iritsi ziren. Artzaintzari buruz hainbat azalpen ematen ditu. Idiekin sutarako edota zerratokirako egur asko garraiatu izan du Joxek Antzuolako okindegi edota zerratokietara. Auzoko errepideak auzolanean nola egin zituzten ere azaltzen du; aitzurrez bidea prestatu, idiekin harria nondik garraiatu eta harrizko zilindro astunarekin nola berdintzen zuten azaltzen du. Bizi guztia eman du bere jaiotetxean, eta bertan ezkondu zen Basalde auzoko Galardi baserriko Maria Guridirekin. Seme-alaba bi izan zituzten.

Zintak

ANT-086

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-14
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

ANT-112

- **Proiektua:** Antzuolako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pavo Nuñez, Kristina

- **Data:** 2004-01-01
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** Mini Disc

Pasarteak

1. Bizar luzea zuen auzokoaren anekdota

- **Erref:** ANT-086/002
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:01:01. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Auzoko gizon batek bizar luze-luzea izaten zuen eta hamabostean behin joaten zen bizarra moztera. Bi aldiz pasa behar izan zion bizarra moztekoa eta orduan bi txakur handi kobratu behar zizkiola esandakoan, gizon horrek lehenengo aldian ondo pasa izan bazuen ez zuela bigarren aldia beharko erantzun zion eta txakur handi bakarria eman zion.

2. Eliza bi aldiz lekuz aldatuta

- **Erref:** ANT-086/005
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:06:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Auzoko eliza egoera txarrean zegoen elkarriketa garaian. Lehen ere bi aldiz edo berreraikitakoa omen da. Azpiko lurak azpiko urak eraginda berezko mugimendua du. Kanposantua ere lehen beste leku batean zegoen

3. Eskola hiru pezeta edo ogerlekoa ordaindu behar

- **Erref:** ANT-086/007
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:10:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Zortzi urterekin joan zen eskolara. Gerraosteko maisu-maistrak ez ei ziren fundamentu askokoak. Beste auzo batzuetakoak ere joaten ziren bertako eskolara, kalean ez zegoen-eta. Egoera normaltzen hasi zenean, jendea kaleko eskolara ere joan zen. Hilabeteen hiru pezeta ordaindu behar izaten zituzten, beranduago ogerleko bat (bost pezeta) izan zen.

4. Erdara Urretxun ikasi zuen

- **Erref:** ANT-086/008
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:10:07. **Bukatu:** 00:11:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan gaztelaniaz egin behar zutela esaten zieten, baina inork ez zekien erdaraz. Gerora ikasi zuen berak, hamaika urterekin Urretxura joan zenean. Hiru negu egin zituen bertako eskolan. Eskolara joateaz gain eskola partikularrera ere joaten zen.

5. Maisua Guardia Zibilarengana ez erreklusatzeko eskatuz

- **Erref:** ANT-086/009
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:11:39. **Bukatu:** 00:13:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Hamaika urte zituela Urretxuko eskola publikora joan zen; hiru negu egin zituen bertan. Kaleko etxe batean bizi zen eta Joxek etxetik eroaten zuen jeneroa, baserriko jatekoa. Trenez joaten zen eta estraperlo garaia zenez, Guardia Zibila adi egoten zen. Berari ezer ez konfiskatzeko maisua guardia zibilengana joan zen ez konfiskatzeko eskatuz.

6. Ogiarekin estraperloan

- **Erref:** ANT-086/010
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:16:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Hamaika urte zituela Urretxuko eskola publikora joan zen; hiru negu egin zituen bertan. Apopilo zegoen etxean, ogiarekin estraperloa egiten zuten. Azkoitian erosten zuten ogi zuria eta trenez ekarri Urretxura ("Villarreal" dio berak). 15 urteko neskatila arduratzen zen horretaz. Guardia Zibila zain izaten zuten askotan. Baina egun guztiak ez ziren berdinak izaten, batzuetan ez zieten isunik jartzen-eta.

7. Ardo-zopak lanera joan orduko

- **Erref:** ANT-086/012
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:17:06. **Bukatu:** 00:20:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Hamaika urte zituela Urretxuko eskola publikora joan zen; hiru negu egin zituen bertan. Sasoi hartan, errazionamenduan ogi beltza ematen zuten, desegin egiten zen ogia. Etxeko agure zaharrak 70 urte zituen eta lantegira joaten zen oraindik. Goizean goizetik ogiarekin ardo-zopak egin eta lanera joaten zen.

8. Gari jotzea matxakearekin

- **Erref:** ANT-086/014
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:23:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian denetariko lanak egiten zituen. Iratan joan behar izaten zirenean, arbia erein behar zenean edo gari jotzea ziren beretzat lanik gogorrenak. Gari jotzea auzolanean egiten zuten. Errota ere denen artean erabiltzen zuten. Gari jotzean etxez etxe ibiltzen ziren, baina beraien aitak gero beraien matxakea erosi zuen etxean egiteko. Berak ez du sekula garia eskuz jo. Matxakean garia asko apurtzen zuen.

9. Arabatik ekarritako gari-hazia

- **Erref:** ANT-086/015
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:23:52. **Bukatu:** 00:25:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gariaren hazia Araba aldetik ere ekartzen zuten. Urte batean gari pila bat atera zen.

10. Gari lanak utzi ez zelako errentagarria

- **Erref:** ANT-086/017
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:25:15. **Bukatu:** 00:28:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Azken urteetan garia segadorarekin ebakitzen zuen. Garia ereiteari elkarrizketa egin baino 40 bat urte lehenago-edo utzi zioten. Labrantza

orokorrean joan zen gainbehera. Lanerako kanpotik ekarritako jendeari ere ordaindu egin behar izaten zieten eta garestia zen. Errota erabiltzeari uzterakoan, Bergarako irin-fabrikara joaten ziren. Kamioia ere ordaindu egin behar zen eta ez zen errentagarria.

11. Bidea auzolanean egin zuten

- **Erref:** ANT-086/019
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:33:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Sutarako egurra ere saltzen zuten eta idiekin garraiatzen zituzten. Errepidea egin barik zegoen eta auzolanean egiten zuten bidea eskuz, inongo makinarik gabe. Idiak ere lagun izaten zituzten orduan. Bidea zelan egin zuten azaltzen du.

12. Hiru idi pare bideko harriak garraiatzeko

- **Erref:** ANT-086/021
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:35:02. **Bukatu:** 00:38:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Herrira doan bidea eurek egin zuten auzolanean. Erabilitako materiala aipatzen du. Hiru edo lau tonako harriak erabili zituzten. Hiru idi pare erabiltzen zituzten, auzoan zeuden onenak. Neguko lana zen hori, udan etxean bazuten lana-eta.

13. Egurra zaldiburdian garraiatzen

- **Erref:** ANT-086/024
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:40:06. **Bukatu:** 00:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Egurra zaldiburdian zelan garraiatzen zuten azaltzen du. Antzuolan bost zerrategi zeuden eta egurra bertara eroaten zuten. Behin Zumarragara saldu zuen egurra bere aitak eta pila bat kostatu zitzaion kobratzea.

14. Artzain lana

- **Erref:** ANT-086/029
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:50:44. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ardiekin lanean aritzea asko gustatu zaio beti Joxeri. Eguneroko lana zelakoa izaten zen azaltzen du pasarte honetan. Morroia ere bazuten etxean, baina Joxe egokiagoa zen lan horietarako. Ia etxe guztietan zeuden ardiak. Ama arduratzen zen ardiak jezteaz.

15. Ardien erditzeak

- **Erref:** ANT-086/031
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:52:51. **Bukatu:** 00:55:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Auzoko gizon bati ikusita ikasi zuen bildotsak zelan jaio behar ziren. Atzekoz aurrera jaiotzea baino txarragoa zen hankak eta burua atzean zuela jaiotzea. Esperientzia handia du Joxek eta zehaztasunez kontatzen ditu xehetasun guztiak.

16. Ardiak antzutu aurretik egunean behin jetzi

- **Erref:** ANT-086/033
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:55:44. **Bukatu:** 00:57:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Artzain lanetan sekula ez zuen txabolan lo egin, etxera etortzen zen. San Pedro inguruan antzutzen ziren ardiak eta hilabete lehenago egunean behin jezten ziren, goizean edo iluntzean. Ia etxe denetan zeuden ardiak. Ezkondu eta gero 100 buru izatera heldu zen Joxe.

17. Goizeko meza edo meza nagusia

- **Erref:** ANT-086/037
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:00:33. **Bukatu:** 01:01:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Gaztetan kalera, Antzuolara, joaten ziren parrandan. Auzoetan urtean behin egiten zen jaia, baina domeketakoa kalean izaten zen. Mezara Uzarragara joaten ziren, baina etxera azkar bueltatu behar izanez gero, kalera joaten ziren lehenengo mezara, goizeko bostetan edo seietan. Nagusiak hamar eta erdietako meza nagusira joaten ziren, baina ama etxeko emakume bakarra zenez, goizeko mezara joan behar izaten zuen gero etxeko lanak egin zitzan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com